



## **ARAUTEGIA 2011**

### **FUTBOL 11**

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, Gasteizen, Betoñoko futbol zelaian 2011ko maiatzaren 28 eta 29 eta ekainaren 4ean. Hona hemen arautegia:

#### **1. JOKATZEKO MODUA**

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak:

Infantilak: 1997 eta 1998an jaiotako mutilak.

#### **2. EKIPOEN OSAKETA**

Ekipoak honela osatuko dira: gehienez 20 jokalaria, delegatu bat eta entrenatzailea.

Aktan 18 jokalaria agertuko dira.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

#### **3. PARTIDUAREN IRAUPENA**

Partiduak hogeita hamabostna minutuko bi zati izango ditu, hamar minutuko atsedenaldira batekin.

Partiduan zehar zazpi jokalaria ordezkatu ahal izango dira. Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gertatu ez dadin, emaitza edozein delarik ere partiduaren amaieran ekipo bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu.

#### **4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO**

##### **ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

⇒ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN  
IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidan lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidan lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

⇒ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN  
IRIZPIDEAK

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituen
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituen
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituen
- 8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituen
- 9º- Zozketa



## **5. BALOIA**

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

## **6. FUTBOL ZELAIA**

Futbol zelaiko belarra artifiziala izango da.

## **7. SARIAK**

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

## **8. EZBEHARREN AURREAN.**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

## **9. AZKEN OHARRA**

1. Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:  
14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
2. Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
3. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2011ko urtarrilaren 24ko Agindua, 2011ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren deialdia egiteko dena.
4. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2011ko urtarrilaren 31ko Ebazpena, 2011eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXX. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
5. Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.